

---

# LEZOKO HIRI-MUGIKORTASUN IRAUNKORRERAKO PLANA

---

EKINTZA-PLANAREN TXOSTENA

---

2022ko martxo

---



Plaza Venezuela, 1  
48001 Bilbao, Bizkaia  
T. 94 655 62 23  
F. 94 657 43 04  
[www.ingartek.com](http://www.ingartek.com)

# LEZOKO HIRI-MUGIKORTASUN IRAUNKORRERAKO PLANA:

---

## 2. FASEA: EKINTZA-PLANA

### 1. dokumentua: Ekintza-plana

# Aurkibidea

<b>01. AURREKARIAK</b>	<b>4</b>
01.1 Proiektuaren xedea eta ikuspegia	4
01.2 Oinarrizko ardatzen definizioa	5
<b>02. ESKU-HARTZE ARLOAK</b>	<b>6</b>
02.1 Oinezko mugikortasuna	6
02.2 Txirringa bidezko mugikortasuna	9
02.3 Garraio publikoa	11
02.4 Garraio pribatua	13
02.5 Aparkalekua	15
02.6 Landa eremua	17
02.7 Industria gunea	19
02.8 Formakuntza eta zabalpena	20

# 01. Aurrekariak

Dokumentu honen xedea Lezoko herriguneak etorkizunean burutu nahi duen mugikortasunaren ikuspegia islatzea da. Ikuspegi hori lortzeko abiapuntua gaur egungo mugikortasunaren egoera izan da, Lezoko Hiri Mugikortasun Iraunkorrerako Planaren barnean garatu diren Aurrediagnostiko eta Mugikortasunaren Diagnostikoaren atalen bitartez.

Egindako mugikortasunaren analisiak herriguneko, industria guneko zein landa eremuko mugikortasunaren ahulezia, arazo, indargune eta aukerak kontuan hartu ditu. Azkenik, lezoarren iritzia eta ekarpenak aintzat hartu dira proiektuko faseetan zehar.

Lezok gaur egun dituen mugikortasun-arazoei ikuspegi zabal eta aurrerakoi bat betetzen duten ekintzen bidez egin behar zaie aurre. Horretarako, betekizun hau aurrera ateratzeko lortzeko moduko helburuak definitu behar dira.


Azkeneko urtetan Lezok hainbat proiektu eta ekimen garatu dira. Hauek mugikortasun planaren aurrekarizat hartuta, udalaren estrategia ondo kokatua dago mugikortasun jasangarriago bat lortzeko. Dokumentu honetan aipatzen diren ekintzak alde aurretik egindako segurtasun, irisgarritasun eta hirigintza planetan oinarritu eta elkarren arteko sinergia betetzen dutela bermatu da. Era berean, etorkizunari begira emango diren pausoak 2030 Agendarekin bat etorriko dira.

Ondorengo ataletan Akzio Plana aurkezten da, lehenik ikuspegi orokorra azalduz, eta ondoren ekintza desberdinak aurkeztuz.

## 01.1 Proiektuaren xedea eta ikuspegia

Hiri mugikortasun iraunkorreko planaren helburu nagusia lezoarren mugikortasun jasangarria eta irisgarritasuna hobetzea da. Horretarako eman beharreko pausuak bost ikuspuntu desberdin kontuan hartzen dituzten ekintzen bidez definitu dira: gizartearen ongizatea, berdintasuna, ingurugiroa, energia eta ekonomia.

Ikuspuntu hauek kontuan hartuta, proposaturiko ekintzek bi kontsigna nagusi errespetatu behar dituzte: garraio bide pribatuaren menpekotasuna murriztea, eta modu jasangarriagoen erabilera sustatzea.



## 01.2 Oinarrizko ardatzen definizioa

---

Akzio planaren helburu, ikuspuntu eta beharrak aurrera ateratzeko ondorengo ardatzak definitu dira. Proposatuko diren ekintzek hauengan eragin positiboa izatea dute helburu.

- Garraiobide ez motorizatuen erabilera sustatzea
- Garraio publikoaren erabilera bultzatzea, auto pribatuaren ordezt
- Mugikortasun inklusibo, jasangarri eta segurua bermatzea
- Hiriguneko eta landa eremuko espazio publikoaren erabilera jasangarriagoa lortzea
- Lezoarren ohiturak moldatzeko akzioak sustatzea

Ardatz hauek burutzeko definituriko akzioak ondorengo esku-hartze arloetan sailkatzen dira:

1. Oinezko mugikortasuna
2. Txirringa bidezko mugikortasuna
3. Garraio publikoa
4. Garraio pribatua
5. Aparkalekua
6. Landa eremua
7. Industria gunea
8. Formakuntza eta zabalpena

## 02. Esku-hartze arloak

### 02.1 Oinezko mugikortasuna

<b>ESKU-HARTZE ARLOA</b>	
<b>1</b>	<b>Oinezko mugikortasuna</b>
<b>Motibazioa eta helburua</b>	
<p>Mugikortasun planaren helburu nagusietako bat garraibide ez jasangarrien menpekotasuna murriztea da.</p> <p>Horretarako, Lezo oinezkoentzako toki erakargarri eta segurua dela bermatu behar da. Hori lortzeko, oinezkoek urtetan zehar auto pribatuarengatik galdutako espazio publikoa berreskuratzea da helburuetako bat, beti ere, segurtasun eta irisgarritasun maila altuak bermatuz.</p> <p>Udalak dagoeneko garatua dauka oinezko herri bideen inbentarioa eta sailkapena. Metrominutu ekimenaren bitartez herriko kokaleku nagusien arteko lotura definitzen da.</p> <p>2003an egin zen herriko lehendabiziko Irisgarritasun Plana, eta 2017an lan horren aktualizazioa aurkezten da.</p> <p>Jarraian aipatzen diren akzioek plan hauen oinarriak zabaldu eta indartzea dute helburu.</p>	
<b>Proposaturiko akzioak</b>	
<b>1.1</b>	<b>Oinezko bideen inbentarioa eta zabalkuntza</b>
<b>1.2</b>	<b>Bidegurutzeen segurtasuna hobetzea</b>
<b>1.3</b>	<b>Herriko puntu beltzen identifikazioa eta argiteriaren hobekuntza</b>
<b>1.4</b>	<b>Herriko hainbat kaleren irisgarritasuna hobetzea</b>
<b>1.5</b>	<b>Pedebusa proiektua. Eskola bideak sortu</b>

<b>AKZIOEN DESKRIBAPENA</b>	
<b>1.1</b>	<b>Oinezko bideen inbentarioaren zabalkuntza eta jarraipena</b>
<b>Arduradunak eta eragileak</b>	
- Lezoko udala	
<b>Akzioak garatzeko epea</b>	
- Epe motzean	
<b>Aurreikusitako onurak</b>	
- Jendearen ohiturak birmoldatzea, distantzia txikiko desplazamenduak oinez egin ditzan	
- Joan-etorriak egiteko oinez egiteko onurei ikusgarritasuna ematea. Komunikazioa eta kontzientziazioa sustatzea.	
- Herrigunean zehar pertsona ororentzat segurtasuna bermatzen duten bideak sortzea	
- Herriko kanpoko bisitak ibilbide erosoetatik bideratzea (Done Jakue bidea)	
<b>Proposaturiko akzioak</b>	
Gaur egun martxan dagoen Metrominutu planaren jarraipena egin, batez ere honen ezagutza zabaltzeko eta jendearen ohiturak aldatzen bultzatzeko. Era berean, ekimen honen jarraipena luzatzea proposatzen da.	
<b>1.2</b>	<b>Bidegurutzeen segurtasuna hobetzea</b>
<b>Arduradunak eta eragileak</b>	
- Gipuzkoako Foru Aldundia	
- Lezoko udala	

<b>Akzioak garatzeko epea</b>	
- Epe motzera	
<b>Aurreikusitako onurak</b>	
- Oinezkoentzat segurtasuna eta erosotasuna hobetzea	
- Oinezko eta ibilgailuen arteko istripuak ekiditea	
<b>Proposaturiko akzioak</b>	
- Donibane kaletik, Altamirako errotondara doan bidegurutzearen segurtasuna hobetzea. Gaur egun, jendeak errepidetik gurutzatzen du (portuko irteeratik), Altamirako errotondara joateko. Bi neurri proposatzen dira, horietako bat egiteko: Oinezko pasabide bat jartzea, edo espaloian hesi bat jartzea, jendeak errepide erditik gurutzatu ez dezan	
<b>1.3</b>	<b>Herriko puntu beltzen identifikazioa eta argiteriaren hobekuntza</b>
<b>Arduradunak eta eragileak</b>	
- Lezoko udala	
<b>Akzioak garatzeko epea</b>	
- Epe motzera	
<b>Aurreikusitako onurak</b>	
- Oinezkoentzat segurtasuna hobetzea, bereziki emakumeen mugikortasunean	
- Oinezko eta ibilgailuen arteko istripuak ekiditea	
<b>Proposaturiko akzioak</b>	
Biztanleriaren segurtasun sentzazioa generoko ikuspuntuan oinarritu behar da, izan ere, espazio publikoaren banaketa ez da neutroa eta emakumeen aurkako erasoak gauzatzea lagun dezake. Segurtasun faltaren sentzazio horrek emakumeen mugikortasunean eragin negatiboa dauka.	
Helburua hutsak, arrotzak eta babesik gabeko kale eta puntuak identifikatu eta eraldatzea da. Lezoren kasuan, hiru faktore nagusi bereizi zituen Emakundek bere txostenetako batean:	
<ol style="list-style-type: none"> <li>1- Inguru hurbiletan zokoguneak edo ezkutalekuak egotea</li> <li>2- Ikusmen-eremu mugatua eta entzuteko eta entzuna izateko zailtasuna</li> <li>3- Gauetan zehar argiteria faltaren sentzazioa</li> </ol>	
Udalak eta Emakundek burututako puntu beltzen analisiak ondorengo kokalekuak identifikatu ditu:	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Kiroldegiko pasabidea (argiztapena eta zokoak)</li> <li>▪ Lezohandia zuhaiztia (argiztapena)</li> <li>▪ Zubitxo kalea eta Markesalde parkeko (argiztapena)</li> <li>▪ Auñamendi kaleko arkupeak (ikuspen falta eta zokoak)</li> <li>▪ Caixako arkupeak (ikuspen falta eta zokoak)</li> <li>▪ Atzekoate kalea (ikuspen falta eta zokoak)</li> <li>▪ Eliza ingurua (ikuspen falta eta zokoak)</li> <li>▪ Polentzarrene eta Donibane kaletako igoera (ikuspen falta eta zokoak)</li> <li>▪ Rotonda azpiko pasabideak (ikuspen falta eta argiztapena)</li> </ul>	
<b>1.4</b>	<b>Herriko hainbat kaleren irisgarritasuna hobetzea</b>
<b>Arduradunak eta eragileak</b>	
- Lezoko udala	
<b>Akzioak garatzeko epea</b>	
- Epe motzera	
<b>Aurreikusitako onurak</b>	
- Oinezkoentzat segurtasuna hobetzea	
- Oinezkoentzat irisgarritasuna hobetzea	
<b>Proposaturiko akzioak</b>	
- Santiago Bideko ibilbidearen irisgarritasuna eta informazioa hobetzea	
- Plazeta eta Arretxene kaleen arteko irisgarritasuna hobetzea	

- 2017ko Irisgarritasun Planaren Berrikusketa eta Eguneraketaren jarraipena egin

### **1.5 | Eskola bideak sortu**

#### **Arduradunak eta eragileak**

- Lezoko udala

#### **Akzioak garatzeko epea**

- Epe motzera

#### **Aurreikusitako onurak**

- Haur eta nerabeen mugikortasun autonomia garatu

- Haur eta nerabeen segurtasuna hobetu

- Gaztetik bizitza aktiboa sustatu.

- Mugikortasun jasangarria sustatu. Familien auto pribatuaren erabilera murriztea

#### **Proposaturiko akzioak**

Eskolen laguntzarekin, eskola bide seguruak garatzeko proiektua sustatzea:

- Ibilbide seguruaren mapa garatzea

- Geltoki edo geralekuak definitzea

- Ikasle, guraso eta arduradunen inplikazioa sustatzea

- Umeen mugikortasunerako zailtasuna suposatzen dituzten puntuak detektatu eta konponbideak aztertzea



## 02.2 Txirringa bidezko mugikortasuna

<b>ESKU-HARTZE ARLOA</b>	
<b>2</b>	<b>Txirringa bidezko mugikortasuna</b>
<b>Motibazioa eta helburua</b>	
<p>Analisian agerian jarri da egungo bidegorriaren arazo nagusietako bat honen jarraikortasun falta eta erabiltzaileek autoekiko antzematen duten segurtasun falta direla.</p> <p>Lezoko bidegorri sarearen hedapenari dagokionez, egungo konexio bakarra Errenteriarekin izanik, inguruko udaletara zabaltzea kontsideratzen da helburu nagusietako bat. Horretaz gain, bizikletaren erabilera handitu ahal izateko, aisiaz haratago erabili ahal izateko ekimenak garatu behar dira, intermodalitatea handituz eta lanera zein eskolara txirringaz desplazatzea sustatuz.</p> <p>Modu paraleloan ibilgailu pribatuak daukan espazioa eta hartutako trafiko baretze neurriekin batera jendearen segurtasun faltaren sententzia desagertzea bilatzen da.</p>	
<b>Proposaturiko akzioak</b>	
<b>2.1</b>	<b>Egungo bide sarearen seinalizazioa hobetzea</b>
<b>2.2</b>	<b>Egungo bide sareari jarraikortasuna ematea</b>
<b>2.3</b>	<b>Txirringa bideen inbentarioa eta zabalkuntza</b>
<b>2.4</b>	<b>Mailegu zerbitzu sistema garatu eta zabaltzea</b>
<b>AKZIOEN DESKRIBAPENA</b>	
<b>2.1</b>	<b>Egungo bide sarearen seinalizazioa hobetzea</b>
<b>Arduradunak eta eragileak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lezoko udala</li> <li>- Foru Aldundia</li> </ul>	
<b>Akzioak garatzeko epea</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Epe motzean</li> </ul>	
<b>Aurreikusitako onurak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bidegorriaren informazioa zabaldu eta segurtasun maila hobetu</li> </ul>	
<b>Proposaturiko akzioak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egungo sarearen seinalizazioaren analisia burutu. Seinaleen azterketa egin eta kokapenak zehaztu</li> </ul>	
<b>2.2</b>	<b>Egungo bide sareari jarraikortasuna ematea</b>
<b>Arduradunak eta eragileak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gipuzkoako Foru Aldundia / Gainontzeko udalerrriak</li> <li>- Lezoko udala</li> </ul>	
<b>Akzioak garatzeko epea</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Epe luzera</li> </ul>	
<b>Aurreikusitako onurak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Txirringa bidezko konexioak hobetu</li> <li>- Egungo sarea hedatu</li> <li>- Txirringa erabiltzaile kopurua handitu</li> </ul>	
<b>Proposaturiko akzioak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lezo eta Pasai Donibane lotzen dituen zonaldearen bidegorriaren azkeneko fasea burutzea. Aldundiaren konpromezua da 2022an azkeneko fasea aurrera eramatea</li> <li>- Lezo eta Pasai Antxo /Donostia lotzen dituen espaloia oinezkoekin konpartitzeko proiektua sustatzea</li> <li>- Lezo- Gaintxurizketa eta Industria gunera joateko bidegorria garatzea</li> </ul>	
<b>2.3</b>	<b>Txirringa bideen inbentarioa eta zabalkuntza</b>
<b>Arduradunak eta eragileak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lezoko udala</li> </ul>	
<b>Akzioak garatzeko epea</b>	

- Epe motzean

#### **Aurreikusitako onurak**

- Jendearen ohiturak birmoldatzea, distantzia ertaineko desplazamenduak txirringaz egin ditzan

- Joan-etorriak bizikletaz egiteko aukerari ikusgarritasuna ematea

- Herritik kanpoko bisitak ibilbide erosoetatik bideratzea

#### **Proposaturiko akzioak**

Herri bideak definitu diren moduan, txirringa bide nagusiak definitu eta zabaltzea proposatzen da.

- Herriguneko kokapen nagusiak

- Eskola bide seguruen definizioa

- Inguruko herrietara konexioa

### **2.4 Mailegu zerbitzu sistema zabaltzea**

#### **Arduradunak eta eragileak**

- Lezoko udala

#### **Akzioak garatzeko epea**

- Epe motzera

#### **Aurreikusitako onurak**

- Jendearen ohiturak birmoldatzea, distantzia ertaineko desplazamenduak txirringaz egin ditzan

- Inguruko herriein desplazamendu jasagarriak sustatzea

#### **Proposaturiko akzioak**

- muiituBIZI bizikleta mailegu sistema onartu berri da Lezon. Gaur egun, helburu nagusia batez ere Lezotik kanpora, hau da herri artean, erabiltzeko sistema bezala definitu da.

- Etorkizunean, zerbitzua Oarsoaldea eta Pasaiaiko beste herriein koordinatzea proposatzen da, antzeko ekimenak modu hedagarrian diseinatzeko

## 02.3 Garraio publikoa

ESKU-HARTZE ARLOA	
3	Garraio Publikoa
<b>Motibazioa eta helburua</b>	
<p>Gaur egun garraio publikoak herriguneko erdialdean ematen du zerbitzua autobusaren bitartez. Trenaren kasuan, Errenteriko muga eta landa eremuan daude geralekuak eta hauen gain egin daitezken aldaketak udalaren eskumenetatik kanpo geratzen dira.</p> <p>Hori dela eta, proposaturiko neurriak intermodalitatea bultzatzeko pentsatu dira. Alegia, garraio publikoa eta bestelako moduak konbinatzea bidaia burutzeko.</p>	
<b>Proposaturiko akzioak</b>	
3.1	Garraio publikoko geltokien irisgarritasuna hobetzea
3.2	Garraio publikoko geltokietan bizikleta-aparkaleku seguruak jartzea
3.3	Industria gunera autobus zerbitzua zabaldu
3.4	Garraio publikoaren askitasuna aztertzea
3.5	Taxien azterketa( zenbat lizentzia behar diren aztertu)
AKZIOEN DESKRIBAPENA	
3.1	Garraio publikoko geltokien irisgarritasuna hobetzea
<b>Arduradunak eta eragileak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lezoko udala</li> <li>- Gipuzkoako Foru Aldundia</li> </ul>	
<b>Akzioak garatzeko epea</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Epe luzera</li> </ul>	
<b>Aurreikusitako onurak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Geraleku erakargarriagoak bilakatzearen ondorioz zerbitzuen erabilera handitzea</li> </ul>	
<b>Proposaturiko akzioak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gaintxurizketako errotondako geralekuen irisgarritasuna hobetu</li> <li>- Errekaldeko tren geltokiko irisgarritasuna hobetu</li> <li>- Kiroldegi pareko autobus geralekutik gertu zebra-bide bat jartzea. Gaur egun, jendeak errepide erditik gurutzatzen du, pasarela edota errotondako zebra-bidea erabili beharrean.</li> </ul>	
3.2	Geltokietan bizikleta-aparkaleku seguruak jartzea
<b>Arduradunak eta eragileak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lezoko udala</li> </ul>	
<b>Beharrezko baliabideak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egungo geralekuen beharrak aztertu</li> <li>- Egungo estandarrak betetzen dituen azpiegitura identifikatu</li> </ul>	
<b>Akzioak garatzeko epea</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Epe motzera</li> </ul>	
<b>Aurreikusitako onurak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Desplazamendu intermodal kopurua handitu, jendeak garraio publikoko geralekuetara errazago iristeko aukera emanez</li> </ul>	
3.3	Industria gunera autobus zerbitzua zabaldu
<b>Arduradunak eta eragileak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lezoko udala</li> <li>- Gipuzkoako Foru Aldundia</li> </ul>	
<b>Akzioak garatzeko epea</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Epe ertaina</li> </ul>	
<b>Aurreikusitako onurak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lantokietara auto pribatuarekin egindako desplazamendu kopurua murriztu</li> </ul>	
<b>Proposaturiko akzioak</b>	

- Industria gunean autobus zerbitzua garatzeko aukera aztertu. Geralekuen kokapena definitu, eta zerbitzuaren deskribapena garatu: egun zerbitzua ematen duten linetan aldatetak proposatu ala linea berri baten definizioa aurrera eraman.

### **3.4 Garraio publikoaren askitasuna aztertzea**

#### **Arduradunak eta eragileak**

- Lezoko udala
- Gipuzkoako Foru Aldundia

#### **Akzioak garatzeko epea**

- Epe ertaina

#### **Aurreikusitako onurak**

- Lezoko eskari eta eskaintzaren arteko oreka hobetu
- Garraio publikoko baliabideak optimizatu

#### **Proposaturiko akzioak**

- Autobusaren eskaintza eta eskariaren arteko analisia egin
- Autobusaren ibilbideen ordutegien eskaintza aztertu
- Geralekuen azterketa egin

### **3.5 Taxi lizentzia kopuruaren azterketa**

#### **Arduradunak eta eragileak**

- Lezoko udala

#### **Akzioak garatzeko epea**

- Epe motza

#### **Aurreikusitako onurak**

- Lezoko eskari eta eskaintzaren arteko oreka hobetu

#### **Proposaturiko akzioak**

- Taxi lizentzia kopuruaren azterketa burutu

## 02.4 Garraio pribatua

<b>ESKU-HARTZE ARLOA</b>	
<b>4</b>	<b>Garraio Pribatua</b>
<b>Motibazioa eta helburua</b>	
<p>Gaur egun garraio pribatuak pisu handiegia dauka ez bakarrik desplazamendu kopuruan baizik eta autoarentzat jartzen diren baliabide, azpiegitura eta espazio publikoko okupazioan. Horretaz gain, GI-2638 eta GI-3440 errepideek herrigunea bitan zatitzen dute, eta hauen trafiko maila altua, eta ibilgailu astun kopurua dela eta herritarren bizitzarengan eragin negatibo esanguratsua dauka.</p> <p>Proposatzen diren neurriak autoa eta desplazamendu ez motorizatuak egiten dituzten arteko elkarbizitza hobetzean oinarritzen dira.</p>	
<b>Proposaturiko akzioak</b>	
<b>4.1</b>	<b>Hiriguneko kaleetan trafikoaren baretzea</b>
<b>4.2</b>	<b>Hiriguneko zonaldeak erabilera mixtora bihurtzea</b>
<b>4.3</b>	<b>GI-2638 eta GI-3440 errepideetan trafikoa baretzea</b>

<b>AKZIOEN DESKRIBAPENA</b>	
<b>4.1</b>	<b>Hiriguneko kaleetan trafikoaren baretzea</b>
<b>Arduradunak eta eragileak</b>	
- Lezoko udala	
<b>Akzioak garatzeko epea</b>	
- Epe motzean	
<b>Aurreikusitako onurak</b>	
- Herriguneko kaleetan zehar erabilitako abiadura eta kutsadura akustikoa murriztea	
- Kaleak oinezko eta txirringentzat erakargarriagoak eta seguruagoak bihurtzea	
<b>Proposaturiko akzioak</b>	
- Auñamendi kaleko ordenazioa aldatzea. Autoentzako noranzko bakarra izatea, ezkerreko espaloiari jarraitasuna emateko. Gainontzeko espazioa aparkatzeko utzi.	
<b>4.2</b>	<b>Hiriguneko zonaldeak erabilera mixtora bihurtzea</b>
<b>Arduradunak eta eragileak</b>	
- Lezoko udala	
<b>Akzioak garatzeko epea</b>	
- Epe ertaina	
<b>Aurreikusitako onurak</b>	
- Oinezkoentzat espazio publikoa berreskuratzea	
- Herriguneko auto kopurua murriztea	
- Kutsadura atmosferikoa eta akustikoa murriztea	
<b>Proposaturiko akzioak</b>	
- Polentzarrene kaleko ordenazioa aldatzea. Aparkalekuak eskuineko aldean utzi, eta ezkerreko oinezkoentzat erreserbatzea. Plataforma bakarreko gunea bihurtu daiteke	
<b>4.3</b>	<b>GI-2638 eta GI-3440 errepideetan trafikoa baretzea</b>
<b>Arduradunak eta eragileak</b>	
- Lezoko udala	
- Gipuzkoako Foru Aldundia	
<b>Akzioak garatzeko epea</b>	
- Epe luzera	
<b>Aurreikusitako onurak</b>	
- Herriguneko kaleetan zehar erabilitako abiadura eta kutsadura akustikoa murriztea	
- Kaleak oinezko eta txirringentzat erakargarriagoak eta seguruagoak bihurtzea	

### **Proposaturiko akzioak**

Herrigunea zatitzen duten bi errepideek bai industria guneko eta bai portuko trafiko altua jasotzen dute. Horrek, abiadura altua, ingurumen eta akustika kutsadura eta istripu probabilitate handiagoa du ondorio.

Hauen eragina murrizteko neurri desberdinak har daitezke: trafikoa baretzeko aukera desberdinak, ibilgailu astunen garraioa debekatzea

## 02.5 Aparkalekua

ESKU-HARTZE ARLOA	
5 Aparkalekua	
<b>Motibazioa eta helburua</b>	
<p>Lezoarren artean, aparkaleku falta izan da kezka eta kexa arrazoi nagusietako bat. Aldiz, ikuspuntu hau ez dator bat egungo jasangarritasun eta espazio publikoaren erabileraren joerarekin.</p> <p>Behin aparkalekuen erabilera altua berretsita, espazioaren okupazio eta herritarren bizimoduaren sinergia lortzeko ondorengo proposatzen da:</p> <p>Egungo aparkalekuen distribuzioa eraldatzea. Herriguneko hainbat aparkaleku egunean zehar bizikidetzarako gune bihurtzea, eta gauez aparkatzeko aukera uztea.</p>	
<b>Proposaturiko akzioak</b>	
5.1	Ordutegiaren araberako aparkatzeko zonaldeak sustatzea
5.2	Kiroldegiko aparkalekuaren ordenazioa
5.3	Pasai Lizeoko aparkalekua

AKZIOEN DESKRIBAPENA	
5.1	Aparkaleku politika desberdinak aztertu eta martxan jarri
<b>Arduradunak eta eragileak</b>	
- Lezoko udala	
<b>Akzioak garatzeko epea</b>	
- Epe motzean	
<b>Aurreikusitako onurak</b>	
- Oinezkoentzat espazio publikoa berreskuratzea	
- Herriguneko auto kopurua murriztea	
- Kutsadura atmosferikoa eta akustikoa murriztea	
- Autoaren menpekotasuna murriztea	
<b>Proposaturiko akzioak</b>	
Udaleko aparkaleku estrategia desberdinak planteatzea gomendatzen da eta hauek udalerriko eragile desberdinekin zabaltzea. Adibidez:	
- Errotazio altuko aparkaleku zonak	
- Aparkaleku disuasorioak	
- Bertakoentzako zonalde eskusiboak	
- Ordutegiaren araberako okupazioa	
Herriguneko ondorengo kaleak identifikatu dira hautagai moduan:	
- Kale Nagusia, Udaletxeko Plaza, Goiko Plaza / Elizaren ingurunea; Donibane Kalea – Agustina Lizarazu- Antonio Pildain	
Herritik kanpoko ibilgailuek duten inpaktua ikusita, kiroldegi eta igerileku ondoko aparkalekuetan bertakoentzako soilik diren plazak ezartzea.	
5.2	Kiroldegiko eta igerilekuko aparkalekuaren ordenazioa
<b>Arduradunak eta eragileak</b>	
- Lezoko udala	
<b>Akzioak garatzeko epea</b>	
- Epe luzera	
<b>Aurreikusitako onurak</b>	
- Herriguneko auto kopurua murriztea	

- Lezoarrentzat aparkalekua bermatzea

#### **Proposaturiko akzioak**

- Zonaldearen ordenazioa hobetu. Plaza kopurua ondo seinaleztatu

- Bertakoentzako zonalde bat garatzeko aukera aztertzea

### **5.3 Pasai Lizeoko aparkalekua**

#### **Arduradunak eta eragileak**

- Lezoko udala

#### **Akzioak garatzeko epea**

- Epe motzean

#### **Aurreikusitako onurak**

- Herriguneko auto kopurua murriztea

- Autoaren menpekotasuna murriztea

- Lezoarrentzat aparkalekua bermatzea

#### **Proposaturiko akzioak**

- Eskolako autobusen erabilera bermatuz, bertako zonaldea auto pribatuek erabiltzeko birmoldatu. Horretarako definitu beharko da: ordutegia, plaza kopurua eta antolakuntza, oinezko bidea errespetatzeko babesa

### **5.4 Zentzu bikoitzeko kaleen ordenazioa aldatu**

#### **Arduradunak eta eragileak**

- Lezoko udala

#### **Akzioak garatzeko epea**

- Epe motzean

#### **Aurreikusitako onurak**

- Autoaren menpekotasuna murriztea

- Lezoarrentzat aparkalekua bermatzea

#### **Proposaturiko akzioak**

Zentzu bikoitzeko kaleak zentzu bakarrekoak bihurtu, eta irabazitako espazioarekin aparkatzeko tokiak jarri. Adibidez:

- Auñamendi kaleko kurban

- Industriaguneko Irurtzun Kalean



## 02.6 Landa eremua

<b>ESKU-HARTZE ARLOA</b>	
<b>6 Landa eremua</b>	
<b>Motibazioa eta helburua</b>	
<p>Landa eremuan identifikatu den arazo nagusia urbanizazio eta konexio falta da. Horren ondorioz, biztanleek auto pribatua erabili behar dute desplazamendu gehienak burutzeko. Ez dira gutxi horrelako hedapena eta dentsitate baxua duen zonalde batek aurkezten dituen mugikortasun erronkak.</p> <p>Gauzak honela, proposaturiko neurrien helburua biztanleei mugikortasun jasangarriago bat burutzeko aukera aurkeztea da.</p>	
<b>Proposaturiko akzioak</b>	
<b>6.1</b>	<b>Eskariaren araberako garraio zerbitzuaren zabalpena</b>
<b>6.2</b>	<b>Gaintxurizketa Goikoan trafikoa mugatu</b>
<b>6.3</b>	<b>Errekalde eta Perrene auzoetako oinezko eta txirringa bidezko konexioak ahalbidetu</b>

<b>AKZIOEN DESKRIBAPENA</b>	
<b>6.1</b>	<b>Eskariaren araberako garraio zerbitzuaren zabalpena</b>
<b>Arduradunak eta eragileak</b>	
- Lezoko udala	
<b>Akzioak garatzeko epea</b>	
- Epe motzean	
<b>Aurreikusitako onurak</b>	
- Landa guneko biztanleei aukera jasangarriak eskaintzea	
- Autoaren menpekotasuna murriztea	
<b>Proposaturiko akzioak</b>	
Gaur egun abian dago eskariaren araberako zerbitzu bat landa gunean zehar. Baina hau, menpekotasuna duten pertsonentzat dago soilik eskainita. Ekimen hau landa eremuko biztanle guztientzat zabaltzea proposatzen da.	
<b>6.2</b>	<b>Gaintxurizketa Goikoan trafikoa mugatu</b>
<b>Arduradunak eta eragileak</b>	
- Lezoko udala	
<b>Akzioak garatzeko epea</b>	
- Epe motzera	
<b>Aurreikusitako onurak</b>	
- Landa guneko biztanleen ongizatea hobetzea	
- Landa guneko aparkalekua ordenatzea	
<b>Proposaturiko akzioak</b>	
Jaizkibelera doazen pertsona askok bere auto pribatua uzten dute landa eremuko zeinbat zonaldetan, baina batez ere Gaintxurizketa Goikoan. Seinalizazio eta araudiaren errespetu falta dela eta maiz jabego pribatuko zonaldetan aparkatzen da. Honi konponbidea emateko, seinalizazio egokia jartzea proposatzen da.	

<b>6.3</b>	<b>Errekalde eta Perrene auzoetako oinezko eta txirringa bidezko konexioak ahalbidetu</b>
<b>Arduradunak eta eragileak</b>	
- Lezoko udala	
- Gipuzkoako Foru Aldundia	
<b>Akzioak garatzeko epea</b>	
- Epe luzera	
<b>Aurreikusitako onurak</b>	
- Ibilgailu pribatuaren erabilera gutxitu	
- Oinezko eta txirrinda bidezko mugikortasuna handitu	
- Segurtasuna bermatu	
<b>Proposaturiko akzioak</b>	
- Errekalde auzora bidegorria. Lezo-Gaintxurizketa bidegorria garatu (Lezoko Hirigintza Planean jasota), bai Lezotik baita Gaintxurizketako biribilgunetik bide segurua bermatuz.	
- Perrene auzo sarrerara bidegorria. Errenteria-Irun bidegorria garatu. Gipuzkoako Foru Aldundiaren plangintza dago.	
- Gaintxurizketako autobus geltokien eta Errekaldeko tren (RENFE eta EUSKOTREN) geltokien irisgarritasuna eta segurtasuna bermatu (3.1 ekintzan jasota)	
- Errekalde eta Perrene auzoetan 'Landagune' izendatzeko aukerak aztertu mugikortasun jasangarriaren ikuspegitik	

## 02.7 Industria gunea

<b>ESKU-HARTZE ARLOA</b>	
<b>7</b>	<b>industria gunea</b>
<b>Motibazioa eta helburua</b>	
<p>Industria gunean arazo nagusia lanerako desplazamenduak egiteko aukera falta da. Garraio publikoaren eskaintza murriztua eta oinez edota txirringaz modu seguruan joateko aukera falta dela eta garraio pribatua erabili behar da. Horrek industria gunean dagoen aparkamendu eskaintza gaitzen du, irregulartasun egoerak sortuz.</p> <p>Hartzen diren neurriak auto pribatu bakoitzeko okupazio maila handitzean oinarritu behar dira.</p>	
<b>Proposaturiko akzioak</b>	
<b>7.1</b>	<b>Lantokietarako mugikortasun planak sustatzea</b>

<b>AKZIOEN DESKRIBAPENA</b>	
<b>7.1</b>	<b>Lantokietarako mugikortasun planak sustatzea</b>
<b>Arduradunak eta eragileak</b>	
- Lezoko udala	
- Industria guneko enpresa arduradunak	
<b>Akzioak garatzeko epea</b>	
- Epe ertainera	
<b>Aurreikusitako onurak</b>	
- Lanerako ibilgailu propioaren erabilera murriztea	
- Erregai fosilen erabilera murriztu	
- Industria guneko aparkatzeko arazoak murriztu	
<b>Proposaturiko akzioak</b>	
- Enpresetan aukera jasagarrien dituzten onurak zabaldu	
- Auto pribatua konpartitzea sustatu	

## 02.8 Formakuntza eta zabalpena

<b>ESKU-HARTZE ARLOA</b>	
<b>8</b>	<b>Formakuntza eta zabalpena</b>
<b>Motibazioa eta helburua</b>	
<p>Azken ekintza sorta honen helburua mugikortasun planaren edukiak zabaldu eta komunikatzean datza.</p> <p>Lezoarren mugikortasun jasangarriago bat lortzeko hausnarketa bultzatzea eta planaren edukiak ulertzea ardatz garrantzitsu bat da planaren arrakasta lortzeko.</p> <p>Planaren garapenean zehar biztanlegoaren parte hartzea hainbat fasetan kontuan hartu da.</p>	
<b>Proposaturiko akzioak</b>	
<b>8.1</b>	<b>Eskoletan mugikortasun jasangarriaren onurak zabaltea</b>
<b>8.2</b>	<b>Herritarren komunikazio plana</b>

<b>AKZIOEN DESKRIBAPENA</b>	
<b>8.1</b>	<b>Eskoletan mugikortasun jasangarriaren onurak zabaltea</b>
<b>Arduradunak eta eragileak</b>	
- Lezoko udala	
<b>Akzioak garatzeko epea</b>	
- Epe motzera	
<b>Aurreikusitako onurak</b>	
- Gaztetik jendearen ohiturak eraldatzea	
- Umeen desplazamenduen segurtasuna hobetzea	
<b>Proposaturiko akzioak</b>	
- Eskoletan oinezko eta txirringa bidezko desplazamendu seguruak sustatzea	
- Txirringa erabiltzeko tailerrak garatzea	
<b>8.2</b>	<b>Herritarren komunikazio plana</b>
<b>Arduradunak eta eragileak</b>	
- Lezoko udala	
<b>Akzioak garatzeko epea</b>	
- Epe motzera	
<b>Aurreikusitako onurak</b>	
- Jendearen ohiturak eraldatzea	
- Planaren ekintza eta neurriak biztanlegoak ulertzea	
<b>Proposaturiko akzioak</b>	
- Planaren diagnostikoa, helburuak eta ekintzak biztanlegoari modu labur eta ulergarri batean zabaltea	
- Planaren jarraipenaren emaitzak argitaratzea	
- Mugikortasunaren inguruko talde dinamikak garatzea: eztabaida taldeak, formakuntzak, ekitaldiak	